



*Bigarren Lehendakariordea eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko Sailburua  
Vicepresidente Segundo y Consejero de Economía, Trabajo y Empleo*

**AGINDUA, 2026KO APIRILAREN 22KOA, BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILBURUARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UDALETXEETAN EMAN BEHAR DIREN GIZARTEKO EZINBESTEKO ZERBITZUAK BERMATZEN DITUENA, 2026KO APIRILAREN 23RAKO, MAIATZAREN 14RAKO ETA EKAINAREN 4RAKO DEITUTAKO GREBAN.**

ELA eta LAB erakunde sindikalek Euskal Autonomia Erkidegoko Udaletxeetan grebarako deialdia egin dute jarraian zehazten diren egunetan eta ordu-tarteetan:

-2026ko apirilaren 23ko egunean, 11:00etatik 13:00etara.

-2026ko maiatzaren 14ko egunean eta 2026ko ekainaren 4ko egunean, egun hauetako bakoitzeko lanaldi osoan, 00:00etatik 24:00etara. Hainbat lan-txanda dituzten eremu, sektore edo lantokietarako, greba lehenengo txandan hasiko da, nahiz eta maiatzaren 14a edo ekainaren 4a baino lehen hasi, eta azken txanda amaitutakoan amaituko da, nahiz eta maiatzaren 14ko edo ekainaren 4ko 24:00ak baino geroago luzatu.

Grebara deitzen den kolektiboa EAeko udalen sektorean diharduten langile guztiak dira – funtzionarioak, lan-kontratudunak eta estatutupekoak –, bai eta toki-administrazio honen eta tokiko sektore publikoko gainerako erakunde publikoen eta enteen jardura guztiak ere, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremu geografikoaren barruan ezarrita daudenak.

Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba-eskubidea aitortzen du, langileen interesak defendatzeko, egungo zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen oinarritzko eskubideetako bat den aldetik. Konstituzioak, beraz, greba-eskubideari ematen dion babes berbera ere ematen die, besteak beste, erlazionatzen eta babesten dituen eskubide garrantzitsuenei, hala nola, bizitza, osotasun fisikoa, osasuna, hezkuntza, zirkulazio askea, informazio-askatasuna eta babes judizial eraginkorrerako eskubidea. Eskubide horiek guztiek, grebarekin batera, Konstituzioaren babes gorena dute.

Beraz, greba egiteko eskubidea erabiltzeak talka egin dezakeenez herritarren gainerako oinarritzko eskubideekin, Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, ezinbestekoa da neurri egokiak hartzea komunitatearentzako funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko, ez dadin edukirik gabe geratu gatazkan dauden oinarritzko eskubideetako bat bera ere.

Argi dago oinarritzko eskubideak murrizten dituen edozein neurriren konstituzionaltasuna proportzionaltasun-printzipioak neurtu behar duela, eta printzipio hori errespetatu egiten dela neurriak Konstituzio Auzitegiak ezarritako hiru betekizunak edo baldintzak betetzen baditu (122/1990 KAE, 123/1990 KAE, 8/1992 KAE eta 123/2003 KAE):

1. Egokitasun-judizioa. Haren aplikazioak proposatutako helburua lor dezake.
2. Premia-judizioa. Egoera ikusita, ez dago eraginkortasun bereko neurri neurritsuagorik helburu hori lortzeko.
3. Proportzionaltasun-judizioa. Emandako neurria edo konponbidea haztatua edo orekatua izatea, haren aplikaziotik interes orokorrerako onura edo abantaila gehiago eratortzen direlako, gatazkan dauden beste ondasun edo balore batzuei eragiten zaizkien kalteak baino.

Gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak ematen direla ziurtatzeak muga bat dakar greba-eskubidea egikaritzeko; hori dela eta, beharrezkoa eta ezinbestekoa da jokoan dauden interesen artean haztapen bat ezartzea. Hala, grebalarien eskubidea mugatu egin beharko da – amore eman beharko du, Konstituzio Auzitegiaren hitzetan –, baldin eta grebaren bidez beren interesak defendatzeak kalte larriagoa eragiten badio edo eragin ahal badio funtsezko zerbitzua emateko eskubidearen hartzaileari edo titularrari, beren aldarrikapenen edo asmoen alegiazko arrakastarik ezak baino. Horretarako, hizpide dugun greba-deialdiaren ezaugarri zehatzak hartu beharko dira aintzakotzat.

Denbora-eremuari dagokionez, apirilean egun batean bi orduko lanuzte partziala egiteko deialdia da, zehazki, 23an; eta 24 orduko bi lanaldi osokoa, bata maiatzean eta bestea ekainean, 14an eta 4an, hurrenez hurren.

Jarduera-eremuari dagokionez, deialdiak EAEn dauden udalen eta tokiko sektore publikoko gainerako organismo eta erakundeen jarduera guztiei eragiten die, eta tokiko administrazioan eta tokiko sektore publikoko gainerako organismo publiko eta erakundeetan zuzenean zerbitzuak ematen dituzten langile guztiak (funtzionarioak, lan-kontratadunak eta estatutupekoak) daude grebara deituta.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak kasu jakin batzuetan udalek bizilagunei nahitaez eman behar dizkieten zerbitzuak ezartzen ditu. Ildo beretik, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak ezartzen du udalerriek eskumen propioak baliatu ahal izango dituztela hainbat esparru materialetan.

Araudi hori ikusita, ondorioztatzen da udalek, administrazio-zerbitzu hutsez gain, funtsezkoak diren beste zerbitzu batzuk ere ematen dizkietela herritarrei, beren eremu geografikoaren barruan. Azken horien artean, honako hauek daude: prebentzio-, sute- eta salbamendu-zerbitzuak; gizarte-zerbitzuak, adinekoentzako eta desgaitasuna dutenentzako egoitzak, eguneko zentroak, etxebizitza komunitarioak, etxez etxeko laguntza-zerbitzuak, adingabeen egoitzak eta esku-hartze sozialeko zentroak (bazterketa-arriskuan dauden pertsonentzako aterpetxeak eta harrera-zentroak, genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko zentroak...); haurtzaindegia edo haur-eskolak; garraioak; errepideen mantentze-zerbitzuak; bide-garbitzeko zerbitzuak; garabi-zerbitzuak; ura hornitzeko eta saneatzeko zerbitzuak, matxuren konponketak eta larrialdietako arreta barne,... Gainera, udalak eraikinen eta lokalen titularrak dira, eta horietan beste administrazio edo erakunde publiko batzuek funtsezkotzat jotzen diren jarduerak egiten dituzte, hala nola hezkuntza-zentroak; kasu horietan, toki-administrazioek zuzenean hartzen dituzte instalazioak irekitzeko eta garbitzeko eginkizunak.

Greba honen deialdiaren eremuan, zentroak askotarikoak eta heterogeneoak direla egiazta daiteke, bai eta kudeaketa-eredu desberdinen berezitasunak ere, eta zaila da horiek homogeneizatzea horrelako agindu batean. Alderdi horiek ere aintzakotzat hartu behar dira gutxieneko zerbitzuak zehazterakoan, herritarren oinarritzko eskubideak babesten saiatuz, baina haien funtsezkotasunera murriztuta, grebarako oinarritzko eskubidea babesteko eta grebara deitutako ahalik eta langile gehienek baliatu ahal izan dezaten, greba ezagutzeko modukoa izan dadin.

Era berean, greba-deialdi honek hainbat enpresa edo erakundetako langileak dituzten zentroei eragiten die. Hori dela eta, zerbitzu batzuk emateko, grebara deitutako langileek greban parte hartu ahal izango dute greban ez dauden langileekin. Hori dela eta, greban bete behar diren gutxieneko langileen eta zerbitzuen ratioak bi kolektibo horien guztizkoaren gainean ezarriko dira, talde horiek zeregin horiek benetan eta ohikotasunez egiten baitituzte.

Konstituzioaren 15 eta 43.1, 19 eta 27. artikuluetan jasotzen dira bizitzarako eta osotasun fisiko eta moralerako eskubide konstituzionalak, bai eta osasunaren babesa, lurraldeko zirkulazio askea eta hezkuntza ere. Botere publikoei dagokie eskubide horiek bermatzea, prebentzio-neurriak ezarri eta beharrezko zerbitzuak emango direla ziurtatuz. Eskubide horiek guztiak ezin dira babesik gabe geratu, grebarako eskubidea zilegi bada ere.

Hori dela eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Jaurlaritzak gutxieneko zerbitzuak ezarri behar ditu, erkidegoan funtsezko zerbitzuak bermatzeko, ondoren adierazten diren eta agindu honetan zehaztuta geratzen diren sektoreetan.

## **LARRIALDIEN ETA SEGURTASUNAREN SEKTOREA**

Larrialdiei aurre egiteko zerbitzuak eta bide-segurtasuneko zerbitzuak (larrialdiei aurre egiteko zerbitzua, suhiltzaileak, suteak prebenitzeko eta itzaltzeko eta salbamenduko zerbitzuak, larrialdietako igorleak eta komunikazioak, errepideen mantentze-lanak, neguko bide-zaintzako zerbitzua barne, eta larrialdiak urtegietan, ibaietan eta mendietan, Babes Zibila...) ematen dituzten ezinbesteko prestazioak funtsezkoak dira komunitatearentzat; izan ere, larrialdi bat ezbehar bihurtzeko aukera saihesteko eta horien aurrean jarduteko daude, hain zuzen ere. Konstituzioaren 15. eta 43.1 artikuluetan jasotzen dira bizitzarako, osotasun fisiko eta moralerako eta osasunaren babeserako eskubideak, eta botere publikoei dagokie eskubide horiek bermatzea, prebentzio-neurriak ezarri eta beharrezko zerbitzuak emango direla ziurtatuz. Greba egiteko eskubidea zilegi bada ere, eskubide horiek ezin dira babesik gabe geratu. Horregatik, sektore hori komunitatearentzat funtsezkotzat jo behar da, eta, beraz, ezinbesteko langileek eman beharreko zerbitzuaren premia aitortu eta atzeraezinekotzat hartu behar da. Horretarako, urteko garai honetako jaiegun baten baliokidea den langile kopurua mantenduko da.

## **GIZARTE-ZERBITZUEN SEKTOREA**

Gizarte-zerbitzuak, bestalde, babes-neurrien multzo gisa eratuta daude, mendekotasun-edo kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen gutxieneko bizi-baldintza duinak eta kalitatezkoak bermatzeko. Konstituzioaren 15. eta 43.1 artikuluetan jasotzen dira bizitzarako eta osotasun fisiko eta moralerako eskubide konstituzionalak, osasuna babestearekin batera.

Botere publikoei dagokie eskubide horiek bermatzea, prebentzio-neurriak ezarriz eta beharrezko zerbitzuak emango direla ziurtatuz. Greba egiteko eskubidea zilegi bada ere, eskubide horiek ezin dira babesik gabe geratu. Konstituzioaren 10.1 artikulua ezartzen du pertsonaren duintasuna ordena politikoaren eta bake sozialaren oinarria dela. Era berean, Konstituzioaren 49. artikulua botere publikoei agintzen die «desgaitasuna duten pertsonen erabateko autonomia pertsonala eta gizarteratzea bermatzen dituzten politikak bultzatzea, leku guztietan irisgarriak diren inguruneetan. Era berean, beren erakundeen parte-hartzea sustatuko dute, legeak ezartzen duenaren arabera. Bereziki zainduko dira emakumeen eta desgaitasuna duten adingabeen behar espezifikoak ».

Ukaezina da egoitza-zerbitzuetan (tutoretzapeko apartamentuak, etxebizitza komunitarioak eta egoitzak), eguneko zentroetan – desgaitasun fisikoak eta psikikoak dituzten pertsonen arreta emateko –, etxez etxeko laguntza-zerbitzuetan, adingabeen egoitza eta etxebizitza komunitarioetan eta esku-hartze sozialeko zentroetan lan egiten dutenen jarduerak berebiziko garrantzia duela gizartean. Zerbitzu horren hartzaileek osatzen duten kolektiboa nekez balia daiteke beren kabuz, beren egoera subjektiboa eta pertsonala dela eta. Beraz, horrelako greba batek sektore horretan gutxieneko zerbitzuak finkatzen ez baditu, grebarekin lortu nahi den helburua baino kalte nabarmen handiagoak eragin ditzake, egoera horietan dauden pertsonen osasuna eta segurtasuna arriskuan jar bailitezke.

Hala ere, aintzakotzat hartu behar da zerbitzu horiek ematean garatzen diren funtzio guztiak ez direla funtsezkoak. Halakotzat hartu beharko dira "arreta zuzeneko zerbitzuak", artatzen diren pertsonen oinarritzko zaintza pertsonalak bermatzeko xedea dutenak. Zuzeneko arretako zerbitzuen barruan, osasun-arretaz eta arreta geriatrikoaz gain, honako hauek ere badaude: otorduen prestaketa eta otordu-zerbitzua, hidratazioak eta medikazio-hornidurak, siesta terapeutikoak eta, mendekotasun-inguruabarren arabera, higiene pertsonala, altxatzeko, garbitzeko, janzteko edo jateko laguntza. Zeregin horiek zerbitzuaren erabiltzaileen – batez ere mendekotasun handia dutenen – osasun hondatua babesteko beharrezkoa den laguntza-tratamendu integralaren parte dira. Era berean, eremu biopsikosoziala mantentzeaz eta kontserbatzeaz ulertzen dena bermatu behar da.

Zentro horien ohiko funtzionamenduak, pertsonen jarduera funtzionala eta ziklo biologikoak aintzakotzat hartuta, intentsitatearen araberako banaketa irregularra du egunean zehar, eta jarduera handiagoa izaten da goizeko lehen orduetan (jaiki, higiene pertsonala, jantzi, medikazioa, gosaria, etab.), eguerdiko bazkalorduan, bai eta eguneko azken orduetan ere (afaria, oheratu, pixoihala aldatu, medikazioa, etab.), non gerokultoreen arreta pertsonalizatu handiagoa behar den. Horren ondorioz, ordu horietan beharrezkoa da langile horien kopurua handitzea, egoiliarren premiei erantzuteko jarduera txikiagoa den eguneko gainerako orduetarako ezarritako oinarritzko langileen kopurua indartzeko.

Premisa horietatik abiatuta, greba-deialdi honen aurrean, ezarri behar da arreta zuzena ematen duten gerokultoreen edo parekatuen % 50ek eman behar dutela zerbitzua, otorduen ohiko ordutegian eta goizeko 08:00etatik 10:30era eta 20:00etatik 22:00etara izan ezik, orduan ehuneko hori % 10 handituko baita; eta erabiltzaileen profilaren % 70ek baino gehiagok II. edo III. graduako mendekotasun aitortua duten egoitza eta etxebizitza komunitarioetan soilik, gerokultoreek edo parekatuek % 70ekoa izan behar dute. Kuantifikazio hori Euskal Autonomia

Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak 2018ko martxoaren 8ko greba orokorra dela-eta 218/2018 prozeduran 2018ko uztailaren 18an emandako epaiaren arabera egiten da. Era berean, gaueko txandan, arreta zuzeneko langileen % 100ek eman beharko dute zerbitzua, eta egin beharreko zereginak «arreta zuzeneko» gisa konfiguratutakoak baino ez dira izango.

Zuzeneko arretaren funtsezkotasun-irizpide bera aplikatu behar da eguneko zentroetan ere, egoitzek baino langile gutxiago baitituzte, oro har. Horregatik, zuzeneko arretako zerbitzuak mantendu beharko dira zuzeneko arreta hori ematen duten langileen % 50ekin, gosariko eta bazkariko ohiko ordutegian izan ezik, non ehuneko hori % 10 handituko baita.

Zentro horietan, gainera, funtsezko zerbitzutzat hartu behar da mendekotasun-egoeran dauden erabiltzaileen garraioa, haientzako joan-etorriak (aurreko paragrafoan aipatutako funtsezko zerbitzuak eskuratzeko) ezin badira egin beste garraibide batzuen bidez, haien mugikortasun-gaitasunetara behar bezala egokituta egon behar baitute. Bestela, pertsona horiek ez lituzkete jasoko prebentziora, mantentzera eta "eguneroko bizitzako oinarritzko funtzioak" izenekoak hobetzerantz bideratutako arreta eta zerbitzu asistentzialak, terapeutikoak eta sanitarioak (Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 24. artikuluan bermatzen diren bezala).

Horri dagokionez, gobernu-agintaritza honek gutxieneko zerbitzuak ezartzen zituen ehuneko jakin bat finkatu gabe, eta nahikotzat jotzen zuen zerbitzua adierazitako baldintzetan "helburu" gisa ezartzea. Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2013ko irailaren 25eko epaiak, 2013ko maiatzaren 30eko greba orokorrerako ezarritako gutxieneko zerbitzuei buruzko aginduekin lotuta emandakoak, zerbitzuaren funtsezkotasuna onartu bazuen ere, ulertu zuen xedapenak ez zuela arrazoirik, «zerbitzu horiek eman behar zituzten langileen greba-eskubidea mugatzearen proportzionaltasunaren ikuspegitik», eta, beraz, garraio-zerbitzu horiek eman behar zituzten langileen ehunekoa adierazi behar zela.

Erabiltzaileen ezintasunengatik behar-beharrezkoa denez gidari batek eta begirale edo laguntzaile batek zerbitzua ematea, ezin da % 100etik beherako portzentajerik eman. Bestalde, kasu horietan ere ezin da egin beharreko garraioaren portzentajezko murrizketarik ezarri, zerbitzua eman arren haren intentsitatea txikiagoa izan dadin; izan ere, horrek langile horiek egin beharreko lanaldia luzatzea ekarriko luke, eta ohiko lanaldia gaindituko luke. Beraz, egoera honetan, garraio bereziarekin egiten den zerbitzuaren funtsezkotasuna bermatzeko behar den prestazioak langile horietako batzuei, zerbitzu hori egin dezakeen bakarra denez, grebarako eskubidea erabat mugatu diezaieke, salbu eta erabiltzaileen mugikortasun-gaitasunei behar bezala egokitutako beste garraibide alternatibo batzuk badaude.

Bestalde, etxeko laguntza-zerbitzua Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 22.1.2 artikuluan jasotako gizarte-zerbitzu bat da, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Katalogoan bildutako zerbitzu eta prestazio ekonomikoen artean. Laguntza pertsonaleko, orientazioko edo eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak zuzenean egiteko arretak biltzen ditu, hala nola jaikitzea/oheratzea, janztea, etxea garbitzea, arropa garbitzea, baxera garbitzea, eguneroko higiene pertsonala, elikadura, medikazioaren kontrola, mugikortasuna eta joan-etorriak, familia-antolaketan laguntzea, elikagaiak erostea, janaria prestatzea, bai eta zerbitzu horren helburuak lortzeko beharrezkoak diren beste jarduketak

osagarri batzuk ere, eta etxetik kanpo eguneko zentroetara edo osasun-zentroetara laguntzea. Zerbitzu horien onuradun dira, hainbat mailatan, bakarrik dauden edo mendekotasuna duten adinekoak, eta, beraz, babes berezia merezi duten zerbitzuak dira, Konstituzioaren 15. eta 43.1 artikuluetan jasotako bizitzarako, osotasun fisiko eta moralerako eta osasunaren babeserako eskubideak bermatze aldera. Botere publikoei dagokie eskubide horiek bermatzea, prebentzio-neurriak ezarriz eta beharrezkoak diren zerbitzuak emango direla ziurtatuz; izan ere, zerbitzu horiek ezin dira babesik gabe geratu grebarako eskubidea zilegi bada ere.

Adingabeen egoitza eta etxebizitza komunitarioei eta esku-hartze sozialeko zentroei dagokienez, egoiliarren bizitza, osasuna, hezkuntza eta segurtasuna eta osotasuna bermatu beharko dira, eta, beraz, greba egiteko, eskubide konstituzional horiek bermatzen dituzten gutxieneko zerbitzuei eutsi beharko zaie. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2013ko maiatzaren 29ko Autoak ordeztu egin zituen bakarrik dauden adingabeen zentroetarako eta esku-hartze sozialeko zentroetarako gutxieneko zerbitzuak, 2013ko maiatzaren 27ko Aginduan ezarritako lanegun bati dagozkionak, eta, horien ordeztu, jaiegun batekoak ezarri zituen. Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2013ko irailaren 25eko 480/2013 Epaia deuseztat jo zituen 2013ko maiatzaren 27ko Aginduan lagundutako adingabeen egoitzetarako ezarritako gutxieneko zerbitzuak (lanegun batekoak), eta egokitzen jo zuen gutxieneko zerbitzuak asteburu batekoa izan behar zuela.

## **HEZKUNTZA-SEKTOREA**

Hezkuntzaren eremuari dagokionez, premisa hau hartu behar da abiapuntutzat: hezkuntzarako eskubidea Konstituzioaren 27. artikuluan aitortutako oinarritzko eskubidea da, zentzu zabalean ulertuta, unibertsitate-hezkuntza barne, Konstituzio Auzitegiak 26/1987 Epaia 4. Oinarri Juridikoaren a) letran adierazi zuen bezala: «Hezkuntzarako oinarritzko eskubidearen tratamendua, unibertsitate-arloan, ez dago funtsezko zerbitzuak finkatzeko sistematik kanpo, ikastetxe horietan zerbitzuak ematen dituzten langileen greba-eskubidea baliatzen den kasuan. Ondorioz, ezin da baieztatu funtsezko zerbitzu horiek finkatzeak Espainiako Konstituzioaren 28. artikulua urratzen duenik, greba-eskubidea ».

Aipamen berezia merezi dute ikastetxe izan arren bereziki babesgabea eta kaltebera den kolektibo bati zuzenduta dauden hezkuntza bereziko ikastetxeek, haien hezkuntza-zentro izaera lausotzen baitute gizarte-zerbitzutzat hartzeraino; horrek tratamendu berezia eskatzen du eremu guztietan.

Bermatu beharreko funtsezko zerbitzuak zein diren zehazteko, eta, beraz, hezkuntza-eremuan gutxieneko zerbitzuak ezartzeko, aintzakotzat hartu behar da greba-deialdiak udal-titulartasuneko ikastetxeei eta horietan eginkizunak betetzen dituzten udaletako langile guztiei – funtzionarioei, lan-kontratadunei edo estatutupekoei – eragiten diela.

Deitutako grebaren eremua aintzakotzat hartuta, hezkuntza-zerbitzuaren esparruaren barruan, hezkuntzako edo hezkuntzarekin lotutako funtzioak, eskumenak eta lanak betetzen dituzten tokiko sektore publikoko funtzionario eta lan-kontratadun langile guztiak sartuko dira greban. Eragin-eremua unibertsitateaz kanpoko hezkuntza arautua ematen duten udal-titulartasuneko ikastetxeak, Haurreskolak Partzuergoak erabiltzen dituen zentroak, udal-hautzaindegia eta udal-titulartasuneko musika-eskolak izango lirateke.



Alde batetik, apirilaren 23an bi orduko lanuzte partziala eta, bestetik, maiatzaren 14an eta ekainaren 4an greba-egun oso bana direla aintzakotzat hartuta ere, zentroak irekitzea nahitaezkoa eta beharrezkoa da greban parte hartzen ez duten langileek lanerako duten eskubidea baliatzeko, Konstituzioaren 35. artikuluan aitortzen dena. Horregatik, gobernu-agintaritzak gutxieneko zerbitzutzat jotzen du ikastetxeetarako eta lotutako eraikinetarako sarrera-kontrola bermatzea, gutxienez grebarako eskubidea ez baliatzea erabakitzen duten langileen eta ikasleen sarbidea zaintzeko; izan ere, zentroak irekiko ez balira, lanerako eta hezkuntzarako eskubide korrelatiboa erabat eta justifikaziorik gabe eragotziko litzateke.

Haurreskolak Partzuergoa osatzen duten zentroak eta udal-hautzaindegiak irekitzeko beharrari dagokionez, grebarekin bat egiten ez duten langileen lanerako eskubidea babesteaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2009ko urriaren 28ko epaiak adierazi zuen bezala, funtsezko zerbitzua da, bai hezkuntzarako oinarrizko eskubidearen ikuspegitik (Konstituzioaren 27. artikuluan aitortzen da), bai lan- eta familia-bizitza bateragarri egiteko eraginaren ikuspegitik, zeina lanerako eskubideari lotuta baitago, gizarte-harremanen bilakaera-izaeraren aurrean gaudelako.

## **GARRAIOAREN ETA MUGIKORTASUNAREN SEKTOREA**

Zirkulazio-askatasunerako eskubidea, Konstituzioaren 19. artikuluan jasotakoa, beste oinarrizko eskubide batzuk baliatzeko oinarria da, hala nola bizitza, osotasun fisikoa eta osasuna babesteko behar den laguntza jasotzeko eskubidea, edo hezkuntza-lanak edo berezko lan-lanak egiten diren zentroetara joateko eskubidea. Eskubide horiek ezin dira babesik gabe geratu, grebarako eskubidea zilegi bada ere. Hori dela eta, aintzakotzat hartu behar da bidaiarien garraioa funtsezko zerbitzua dela gizartearentzat; izan ere, zerbitzu horiek ez emateak, kasu batzuetan, benetako ezintasuna eragingo lieke herritar askori, eta horrek zirkulazio askerako eskubide hori urratuko luke.

Gainera, aintzakotzat hartu behar da bidaiarien garraio-linea batzuk bakarrak direla eta ez dutela ordeztatzeko bestelako garraiorik. Era berean, aintzakotzat hartu behar da, normalean, linea horien erabiltzailearen profila honako hau dela: ibilgailu partikularrik ez duten pertsonak, adinekoak edo desgaitasuna dutenak, edo eremu isolatuetan bizi direnak edo bitarteko alternatiboak eskuratzeko baliabide urriak dituztenak.

Bestalde, administrazio publikoek garraio publikoaren erabilera sustatu dute herritarren artean joan-etorrietan, sektore horri bitarteko berriak emanez (metroa, tranbia...) eta lehendik dauden linea eta zerbitzuak sustatuz (trena eta autobusa, batez ere).

Hori guztia garapen egokiago eta jasangarriagoa lortzen laguntzeko egin da, bai eta hiri-trafikoaren kolapsoa saihesteko ere, batez ere egunez, alternatiba garraibide pribatuak erabiltzea izan ez dadin. Jarduera horri esker, zerbitzu publiko horien erabilera-eskaria nabarmen handitu da.

Inguruabar horiek, beste faktore batzuekin batera, hala nola udalerrri barruan komunikazioa bermatzea, batez ere udalerrri zabalenetan eta biztanle gehien dutenetan, lanera, ikastetxeetara, osasun-zentroetara eta abarretara joateko aukera emanez; eta bidaiarien garraio-zerbitzu edo linea batzuk herritarren joan-etorrietarako ezinbesteko bitarteko edo bakarra direnez gero –dela alternatibarik ez dagoelako, dela kudeatzen dituen beste garraibide

baten alternatiba delako—, horrek guztiak ezarri beharreko gutxieneko zerbitzuak % 30 izatea dakar. Era berean, funtsezkotzat jo behar dira garraibideen koordinazio- eta kontrol-zerbitzuak, izan ere, instalazioen eta haietan dauden pertsonen segurtasunari eta larrialdi-egoeretan jarduteari dagokienez, greba-egoera baten aurrean zaindu behar diren oinarrizko eskubideekin lotuta dago zerbitzu horien zeregina. Zerbitzu horiek gutxieneko langile kopuru batekin eman beharko dira.

Aintzakotzat hartu beharreko beste faktore bat da zerbitzu batzuk greba hasi aurretik hasten direla, eta horrek, zerbitzu horiek ezarri ezean, ezarritako orduan berehala gelditzea ekarriko luke, une horretan zerbitzu horiek erabiltzen ari diren pertsonen ibilbidea amaitu gabe utzita. Era berean, zerbitzua berrabiarazteko unean, eta lanuztea amaitu ondoren, geldialdi horrek zailtasun handiagoa ekarriko du dagozkion erritmoak eta maiztasunak berrezartzeko, eta horrek grebaren ondorioak luzatu ahal izango lituzke, deituta dagoen denbora-mugatik harago.

Era berean, bide-zirkulazioaren segurtasuna bermatu behar da, langileen gutxieneko presentziarekin, joan-etorrien ondorioz sor daitezkeen arrisku-egoeren intentsitatearen arabera modulatzeko, bai eta segurtasunarekin zuzenean lotuta egoteagatik gorabeherak kontrolatzeko, mantentzeko, laguntzeko eta seinaleztatzeko jarduerak ziurtatzeko ere; beraz, horiek guztiak funtsezkotzat jo behar dira. Horretarako, udal-titulartasuneko errepideen mantentzea bermatuko da, jaiegun bati dagozkion langileekin eta zerbitzuekin.

Udal-eremuan, bide-garbiketako zerbitzuak ere ematen dira, pertsonen zirkulazio askea eta segurtasuna bermatzeko beharrezkoak direnak. Deitutako greban zerbitzu horiek ez emateak ondorio larriak izan ditzake pertsonen segurtasunean, bereziki salbuespenezko egoerak gertatzen badira, hala nola istripuak, larrialdiak edo eguraldi txarra. Horregatik, egoera horiei aurre egiteko gutxieneko zerbitzuak ezarri behar dira.

Azkenik, zirkulazio askea eta segurtasuna bermatzeko beharrezkoa den beste udal-zerbitzu bat udal-garabiarena da. Bere jardueraren barruan sartzen dira, besteak beste, bide publikoan gaizki aparkatuta dauden ibilgailuak kentzeko eta gordailura eramateko jarduketak.

Zerbitzu honen arau-babesa abenduaren 20ko 18/2021 Legean dago, zeinaren bidez aldatzen baita Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testuategina, urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua, puntukako gidabaimenari eta gidalizentziari dagokienez.

Ibilgailuak kentzeko udal-zerbitzu horren helburua da bide publikoko zirkulazio askea arautzea eta ahalbidetzea, herritarrek, oro har, eta desgaitasuna duten pertsonen, bereziki, garraio publiko orokorrak, osasun-zerbitzuek, zaborrak kentzeak edo beste zerbitzu batzuek, besteak beste, suteak itzaltzeak eta polizia-zerbitzuek, bide publikoan barrena ibiltzea bermatzeko.

Hala ere, lehen aipatutako jarduera guztiek ez dute eragin bera lehen aipatutako oinarrizko eskubideen babesean. Horrela, gutxieneko zerbitzutzat honako hauek bakarrik hartu behar dira: kaleetan zirkulatzea eragozten duten ibilgailuak edo desgaitasuna duten pertsonen mugikortasunari eragin diezaioketenak kentzea, bai eta ibilgailu horiek dagokien gordailura eramatea ere, baldin eta bidean espazio librerik ez badago ibilgailua segurtasun-baldintzetan



aparkatuta uzteko. Ibilgailuak kentzea agintaritza eskudunak agindu beharko du, eta garabi batek egingo du lan-txanda bakoitzean, goizez, arratsaldez eta gauez, ohiko hornidurarekin.

### **URAREN HORNIDURA ETA ARAZKETA**

Era berean, ura araztu eta hornitzen duten toki-erakundeak funtsezkotzat jo behar dira, ekarpen erabakigarria egiten baitiete oinarritzko eta/edo premia larriko ondasunak eta zerbitzuak sortzen dituzten azpiegiturei eta produkzio-prozesuei. Langileen grebarako eskubidea baliatzeak konpondu ezin diren kalteak eragin diezazkioke pertsonen osasunari; beraz, behar-beharrezko ondasun horien hornidura bermatuta egon beharko da greba egiten den bitartean.

Agindu honetan ezarritako gutxieneko zerbitzuak bat datoz funtsean greba orokorren ondorioz emandako aginduetan ezarritakoekin. Berrienak 2026ko martxoaren 13ko eta 2025eko urriaren 13ko Aginduak dira, zeinetan 2026ko martxoaren 17an eta 2025eko urriaren 15ean deitutako greba orokorretarako gutxieneko zerbitzuak ezarri baitziren, hurrenez hurren.

Agindu horiek ez dira aurrekari lotesleak deialdi honetako gutxieneko zerbitzuak finkatzeko – Konstituzioaren doktrinak debekatzen duen inferentzia –, baina aintzakotzat hartu beharreko aurrekariak dira, aplikazioan ikusitako gorabeheren eta akatsen arabera, agindu honen bidez babestu nahi diren eskubide eta ondasun konstituzionalen gaineko gutxieneko zerbitzuek – grebakoa barne – ezarritako babeserako.

Azkenik, aintzakotzat hartu behar da deialdi hau sektore eta enpresa jakin batzuetan egiten diren berariazko beste greba-deialdi batzuekin batera egiten dela aldi berean. Horretarako, gutxieneko zerbitzuen beste agindu zehatz batzuk eman dira, dagozkien denbora-eta funtzio-inguruabarretara egokituak. Kasu horietan, gutxieneko zerbitzuak ezartzen dituzten agindu horiek aplikatuko dira.

Inguruabar horiek direla eta, gobernu-agintaritzak agindu honetan zehazten diren gutxieneko zerbitzuak ezartzen ditu, gatazkan dauden eskubideen funtsezko edukia bateragarri egiten saiatuz.

Gai honetan Gobernu Agintaritzari eskumen eskusiboa esleitzeak bermatu nahi du grebarako eskubidea baliatzeak izan behar dituen mugak zuzenbidearen arabera eta gobernatzeko erantzukizuna eta ahalmena duenak baino ezin izango dituela ezarri, funtsezko zerbitzu jakin batzuei eustearren, oinarritzko beste eskubide batzuk ere betetzera bideratuta baitaude.

Horregatik, Lan Harremanei buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuaren 10.2 artikuluan aipatzen den prozedura bideratu da.

Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 5eko 323/2024 Dekretuaren 3. artikulua, sail horren titularrari esleitzen dizkio Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren bidez lan-arloko legeria betearazteko bere gain hartutako eskumenak. Hain zuzen ere, 2.j) apartatuan jasotzen du zerbitzu publikoak edo premia biziko eta atzeraezineko zerbitzuak emateko ardura duten enpresa, entitate eta erakundeei eragiten dieten greba-eskubideaz baliatzen direnean

erkidegoko funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela bermatzeko behar diren bermeak ezartzeko eskumena. Eskumen hori ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuak eskuordetzen du.

Horregatik guztiagatik, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuak, Eusko Jaurlaritzak eskuordetuta, honako hau

### **EBAZTEN DU:**

**Lehenengoa.** – 2026ko apirilaren 23an, 11:00etatik 13:00etara, eta 2026ko maiatzaren 14an eta ekainaren 4an, 00:00etatik 24:00etara, EAEko udalen sektoreko langile guztiek deitutako greba-eskubidea baliatu ahal izateko, hurrengo apartatuetan ezartzen diren funtsezko prestazioak eta horiei dagozkien gutxieneko zerbitzuak mantendu beharko dira.

### **Bigarrena.** – **Larrialdiei aurre egiteko eta bide-segurtasuneko zerbitzuen sektorea.**

Urteko sasoi honetako jaiegun bateko langileekin mantenduko dira larrialdiei aurre egiteko zerbitzuak, suhiltzaile-zerbitzuak, suteak prebenitzeko eta itzaltzeko zerbitzuak, salbamendu-zerbitzuak, larrialdietako igorgailuak eta komunikazioak, errepideen mantentze-lanak (neguko bidezaintza-zerbitzua barne), eta larrialdietako zerbitzuak urtegietan, ibaietan eta mendietan, babes zibilean...

### **Hirugarrena.** – **Gizarte-zerbitzuen sektorea.**

a) Adinekoentzako eta/edo mendekotasun edo desgaitasun bat dutenentzako egoitzetan honako hauek mantenduko dira:

1. Gerokultoreak edo antzekoak: zuzeneko arreta ematen duten langileen % 50i eutsiko zaie, bazkaltzeko ohiko ordutegian eta goizeko 08:00etatik 10:30era eta 20:00etatik 22:00etara izan ezik, horietan ehuneko hori % 10 handituko baita. Soil-soilik erabiltzaileen % 70ek baino gehiagok II. edo III. graduako mendekotasun aitortua duten egoitzetan, gerokultoreak edo antzekoak % 70 izango dira.

Gaueko txandan, zuzeneko arretako langileen % 100ek emango du zerbitzua, eta «zuzeneko arreta» gisa eratutako zereginak baino ez dira egingo.

2. Osasun-langileak: OLT/EUD langileen % 50 mantenduko da.

3. Sukaldeko langileak: langileen % 50 mantenduko da. Greban, elikagaiak prestatzeko lanak baino ez dira egingo.

4. Garbitzaileak: langileen % 20 mantenduko da. Pertsonen segurtasunerako edo osasunerako arrisku larria eta berehalakoa dakarten eremuetan baino ez da garbituko.

5. Atezaindegiko harrerako langileak: egoitzetako sarrera nagusiko atea zaintzeko eta kontrolatzeko soilik emango da zerbitzu hori, eta pertsona 1 egongo da txanda bakoitzean eta zerbitzu hori emateko ohiko ordutegian.

b) Eguneko zentroetan, adinekoentzako etxebizitza komunitarioetan eta hezkuntza bereziko zentroetan, bai eta mendekotasun- edo desgaitasun-mailaren bat duten pertsonen eragiten dieten bestelakoetan ere, honako hauek mantenduko dira:

1. Zuzeneko arretako zerbitzuak, zuzeneko arreta hori ematen duten langileen % 50ekin, gosariko, bazkariko eta afariko ohiko ordutegian izan ezik, horietan ehuneko hori % 10 handituko baita.

2. Osasun eta sukaldeko langileen % 50 izango da gutxieneko zerbitzua. % 50 pertsona bat baino gutxiago bada, pertsona horrek zerbitzu horiek egin beharko ditu. Gaueko txandan, zuzeneko arretako langileen % 100ek emango du zerbitzua, eta «zuzeneko arreta» gisa eratutako zereginak baino ez dira egingo.

3. Eguneko zentroetara joaten diren mendeko pertsonen garraio berezia mantenduko da, zentro horietara joateko desplazamenduak (aurreko paragrafoan aipatutako funtsezko zerbitzuak jaso ahal izateko) ezin badira beste garraiobide batzuetan egin eta/edo ez badaude haien mugikortasun-gaitasunetara behar bezala egokituta.

c) Etxeko laguntzaren sektorean, II. eta III. mendetasun-gradua duten pertsonen soilik emango zaizkie honako zerbitzu hauek:

1. Janari-zerbitzua. Ahal den neurrian, aurrez prestatutako elikagaietara joan beharko da.

2. Honako zerbitzu hauek egingo dira: eguneroko higie pertsonala, komuna erabiltzea, hala badagokio, maskuria eta hesteak kanporatzea, jaikitzen eta oheratzen laguntzea, jantztea, eta sendagaiak eta elikagaiak hartzen direla gainbegiratzea.

3. Hitzordua aldeztu aurretik hitzartuta duten eta atzeratu ezin diren osasun-zentroetara joaten lagunduko zaie erabiltzaileei.

4. Era berean, eguneko zentroetara laguntzeko lanak egingo dira.

5. Ohean egotera derrigortuta dauden pertsonentzat, beharrezko jarrera-aldaketak.

d) Adingabeen egoitzetan, ikastetxeetan eta etxebizitza komunitarioetan, bai eta esku-hartze sozialeko zentroetan ere, jaiegun bati dagozkion zerbitzuak mantenduko dira.

### **Laugarrena. – Hezkuntza-sektorea.**

Ikastetxeetan jarraian adierazten diren zerbitzuak bermatuko dira, honako langile hauekin:

a) Zentroetara sartzeko kontrola bermatzeko, ikastetxe publiko bakoitzeko eta atxikitako eraikin bakoitzean: mendeko funtzioak dituen pertsona bat goizeko txandarako, eta beste bat arratsaldeko txandarako, halakorik balego.

b) Haurreskolak Partzuergoa eta udal-titulartasuneko haurtzaindegia: zentroetara sartzeko kontrola bermatzeko, ikastetxe bakoitzeko eta atxikitako eraikin bakoitzean: koordinatzaile bat edo haren ordezkari pertsona bat.

c) Udal-titulartasuneko musika-eskolak: zentroetarako eta atxikitako eraikin bakoitzerako sarrera-kontrola bermatzeko, mendeko funtzioak dituen pertsona bat eraikin bakoitzerako eta goizeko eta arratsaldeko txanda bakoitzerako.

### **Bosgarrena. – Garraioaren eta mugikortasunaren sektorea**

a) Hiri-garraioko zerbitzuak greba-deialdiarekin bat datozen ordu-tarteetan programatutako zerbitzu arrunten % 30 izango du. Ehuneko hori banatzeko, lehentasuna eman behar zaie ordezeko garraio-zerbitzurik ez duten lineei edo osasun-zentroak jomugatzat dituztenei. Era berean, bereziki bete beharko dira lantokietan sartzeko eta irteteko ordutegiak. Greba hasi baino lehen hasten diren zerbitzuek, hala badagokie, ohiko ibilbidea amaitu arte egiten jarraitu beharko dute. Era berean, garraiobideetako aginte-, koordinazio-, kontrol- eta segurtasun-zerbitzuak mantendu behar dira, zerbitzu horietako lanpostu bakoitzeko eta txanda bakoitzean pertsona batekin.

b) Udal-titulartasuneko errepideen mantentze-lanak bermatuko dira, jaiegun bati dagozkion langile eta zerbitzuekin.

c) Aparteko egoerak gertatzen direnean, hala nola eguraldi txarra, istripuak, larrialdi-egoerak, koipea edo olioak isurtzea edo hildako animaliak kentzea, bideak garbituko dira horretarako behar-beharrezkoak diren langileekin.

d) Udal-garabiaren zerbitzua: Agintari eskudunak aginduta, kendu egingo dira bide-zirkulazioa oztopatzen duten ibilgailuak eta desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako aparkalekuak okupatzen dituztenak, eta ibilgailuen biltegira eramango dira. Zerbitzu hori garabi batek egingo du lan-txanda bakoitzean, goizez, arratsaldez eta gauez, eta ohiko hornidura izango du.

### **Seigarrena. – Uraren hornidura eta saneamenduaren sektorea.**

Ura arazteko eta hornitzeko zerbitzua emango dela bermatuko da, jaiegun bati dagozkion langileei eutsiz.

**Zazpigarrena. –** Agindu honetan ezarritako gutxienerako zerbitzuetan, hau da, zerbitzua eman behar duten pertsonen ehuneko jakin batean, honako arau hauek aplikatuko dira zerbitzu horiek kalkulatzeko:

a) Ehunekoa 1etik beherakoa bada, pertsona batek gutxienerako zerbitzuak egin beharko ditu.

b) Gainerako kasuetan, zatikizko zenbaki bat lortzen bada, gutxienerako zerbitzuak eman behar diren denbora zehazteko kalkulua zerbitzu bakoitzeko langileen ohiko lanaldiaren zenbaketaren arabera egin beharko da.

c) Gutxienerako zerbitzuak egin behar direnean, grebara deitutako langileak eta grebara deituta ez dauden langileak elkarrekin badaude, agindu honetan ezarritako ehunekoak kalkulatzeko, normalean lan horiek egiten dituzten bi kolektiboetako pertsona guztiak hartuko dira aintzakotzat.

**Zortzigarrena.** – Agindu honetan ezarritako gutxieneko zerbitzuak ez dira aplikatuko berariazko greba-deialdien eraginpean dauden eta dagozkien gutxieneko zerbitzuak ezartzen dituen beste agindu bat edo batzuk dituzten sektore eta enpresetan, eta deialdi espezifiko horien ondorioz emandako aginduak aplikatuko dira.

**Bederatzigarrena.** – Gorago aipatutako zerbitzu guztiak aldatu ahal izango dira, dagozkien administrazio-izapideak egin ondoren, grebaren iraupenaren arabera edo arrazoi higienikoek, biosanitarioek edo gerora sortutako aparteko beste arrazoi batzuek hala eskatzen dutenean.

**Hamargarrena.** – 1. Grebarako eskubidea baliatzen ez duten langileek emango dituzte lehentasunez aipatutako zerbitzu horiek.

2. Enpresako edo erakundeko zuzendaritzari dagokio, langileen ordezkariari entzun ondoren, gutxieneko zerbitzuak bete behar dituzten langileen izenak izendatzea eta eginkizunak txandaka esleitzea, betiere aurreko artikuluan eta indarrean dagoen legedian ezarritako mugak errespetatuz.

3. Justizia Administrazioaren esparruan, Justizia Administrazioko letraduek, fiskalburuek edo kasuan kasuko organismoko buruak izendatu beharko dituzte oinarritzko zerbitzuak bete behar dituzten pertsonak, eta, zehaztu gabe dagoen kasuetan gutxieneko zerbitzuak bete behar dituen funtzionarioak zein kidegotakoa izan behar duen zehaztu beharko dute, dagokion organo zehatzaren berezko zereginaren barruan sartzen diren funtsezko zerbitzuak aintzakotzat hartuta.

**Hamaikagarrena.** – Agindu honetako aurreko idatz-zatietan jasotako gutxieneko zerbitzuak ezin izango dira oztopatu zerbitzu horiek emateko izendatutako langileen aldaketen edo lanuzteen ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kontrakotzat joko dira, eta sortzen dituztenek erantzukizuna izango dute, indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera eskatuko zaiena.

**Hamabigarrena.** – Aurreko paragrafoetan xedatutakoak ez du ekarriko greba arautzen duen araudiak egoera horretan dauden langileei aitortzen dizkien eskubideen inolako murrizketarik, ez eta greba eragin duten eskaeren izapidetzeari eta ondorioei dagokienez ere.

**Hamahirugarrena.** – Jakinarazten den egunean jarriko da indarrean agindu hau.

**Hamalauugarrena.** – Jakinaraz bekie agindu hau interesdunei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan ezarritako moduan, eta adieraz bekie agindu honek administrazio-bidea amaitzen duela, eta haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezaketela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko dagokion salan, 2 hilabeteko epean, jakinarazten den egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin bat etorritz.



Era berean, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorriz, jakinarazi behar da, halaber, agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango dela lan-agintaritza honetan, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteizen,

**MIGUEL TORRES LORENZO**  
**BIGARREN LEHENDAKARIORDEA ETA**  
**EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILBURUA**